

Irribarreak gaztetu egiten gaitu	 bista eder clinica dental - horts klinika Bista Eder, 19 -EIBAR- 943700082 / 943 20 84 75	Inplante eta Hortz-Estetikan adituak
--	--	--

2.200 litro sagardo banatuko dira zapatuan Untzagan | Jaiak | Berriak | ...eta kitto! Euskara Elkartea



- [...eta kitto!](#)
- [Nortzuk gara](#)
- [Komunikabideak](#)
- [Bertso taldea](#)
- [Euskara zerbitzuak](#)
- [Kulturgintza](#)
- [Berbetan](#)
- [Egin zaitez bazkide](#)

- [Gida komertziala](#)
- [Txikitto!](#)
- [Itzulpengintza](#)
- [Hauteskundeak](#)
- [Liburuak](#)
- [Blog-ak](#)
- [Kultur agenda](#)
- [Kirol agenda](#)

- [ETA KITTO!](#)
- [Berriak](#)
- [Jaiak](#)
- 2.200 litro sagardo banatuko dira zapatuan Untzagan

2013ko Urriak 7, Astelehena. 10:04

BILATZAILEA

	Bilatu
----------------------	---------------------------------------



PUBLIZITATEA

2.200 litro sagardo banatuko dira zapatuan Untzagan



2013/10/04

Bihar (zapatua, urriak 5) **#SagardoEguna** ospatuko da **Untzagan** eguerditik aurrera. 1993an ekin zion **...eta kitto! Euskara Elkartek** jai hau antolatzeari, baina orain dela lau urte geldiunea egin eta gero, guztiz aldatu zen egun handi hori. Egun osoko ekitaldia egitea erabaki eta gero, orain dela bi urte **Gorenak Sagardoak** markako lagunekin elkarlana hasi zuen elkarteak eta, horrekin batera, urtero berritasunak sartzen ahalegintzen dira antolatzaileak.

Sei euroren truke

Mota biko tiket edo baleak izango dira salgai eguerdiko 12.00etatik aurrera, udaletxe pareko salmenta puntuan. **Tiket nagusiak** sei euro balioko du eta urteroko moduan horren **trukean edalontzia, zapia, pintxoa** eta **txotx**-a izango dira. Pintxoetan aukera bi izango dira, **txorizoa** eta **gazta**; pintxo horren balea izango da bigarren aukerakoa. 1,50 euroko prezioarekin beste pintxo bat jateko aukera izango duzue. **Udaletxe** parean izango dituzue bale salmenta eta edalontzien banaketa. Irrintziarekin batera, hasiko dugu bale salmenta eta dastaketa, 12.00etan.

12.30etatik aurrera jokoak eta mozorroak

Iaz be izan zen Eibarko gaztetxoendako jokorik, baina aurten jokoak eta mozorroak izango dira. Urtero ipintzen den **erakusketaren** alboan, **sagar mozorroak** eta **jokoak** izango dira. **Begiraleek** mozorroak egiten lagunduko diete gaztetxoenei eta jarraian joko interesgarria izango dugu: **altxorrenaren bila**. Untzaga plazan ezkutatuko ditugu sagar berezi batzuk eta horiek topatu beharko dituzte. Zein izango da azkeneko pistaren emaitza? Animatu gaztetxoena eta 12.30etan

gerturatu erakusketara, Ihintza, Maier eta Lorea zain izango dituzue-eta.

Gabonetako otarra nahi?

Gezurra badirudi ere, Gabonetan pentsatzen hasi da ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Aurten **2.000 euroko balioa** duen ikaragarritzko **otarra** zozketatuko dugu. Abenduaren 18an izango da **zozketa**, baina parte hartzeko euro bateko boletoa erosi beharko da. Elkartearendako proiektu berria da, ez baitugu loteriarik salduko aurten eta otar berezia zozketatzea pentsatu dugu. Sagardo Eguna aproposa dela pentsatzen du elkarteak, 2013ko beritasun hori martxan jartzeko.

Erabili #SagardoEguna

Hirugarren urtez Facebook eta Twitter bitartez eguneko kontakizuna egitea nahi du ...eta kitto! Euskara Elkartek. Iaz ere eskatu genizuen laguntasuna eta izan genuen, benetan, baina aurten berriro ere zuengana jotzen dugu: zuen laguntza behar dugu Sagardo Egunean gertatzen dena sarean ezagutarazteko.

Gaur egun hain garrantzitsuak diren sare sozialetan txokoa eman nahi dio ...eta kitto!k euskarari eta sagardo egunari, baina guk bakarrik ezin dugu eta **#SagardoEguna hitz gakoa** erabilita, zuen parte-hartzea espero dugu.

Goiz eta arratsaldeko eguna bilakatu zenetik, Sagardo Eguna esatari bat izan du, jaialdia girotzeko: noizbehinka txotx-a eskatzeko edo bertaratuak xaxatzeko. Baina Untzaga plazan izango den giroa **sare sozialetan** adierazteko #SagardoEguna erabili eta gero, esatariak ere egingo die errepasoa Facebook eta Twitter-en esaten direnei.

Gertatzen den guztiaren berri emango du [Facebook-eko ...eta kitto!ren orrialdeak](#) eta **Twitter-eko @etakitto** perfilak, baina horrez gain, zuetako edo edozeinek izango du kontakizuna egiteko aukera eta saria izateko aukera. Saria? Zer nolako saria izango da, ba? galdetuko dio batek baino gehiagok bere buruari. Iaz egin genuen moduan, aurten ere zozketa egingo dugu eguneko parte-hartzaile guztien artean, euskaraz Sagardo Eguna zer nolakoa izan den kontatzen laguntzen digutenen artean. Zozketaren irabazleak Gorenak-eko sagardotegietako botila bana jasoko du. Zozketa urriaren 9an egingo dugu, hau da, datorren eguaztenean. Izan ere, urtero egiten dugun moduan, datorren asteko alean ere errepasoa egingo zaio zapatu honetan Untzagan gertatutako guztiari eta tartean zozketa honen berri ere emango da. Lagundu zapatuan eta zorte on zozketan.

Argazkiak Facebook-eko orrian

etakitto.com eta Facebookeko elkartearen orrialdean sartzen ditugu gure herriko albiste eta argazkiak. Elkartearen egun handia bilakatu da Eibarren Sagardo Eguna, eta jakina, horrek ere izango du islada webgunean eta Facebooken. Hori dela eta, #SagardoEguneko argazkiak Facebooken izango dira zapatuan bertan. Goizean egindako argazkiak arratsalderako izango dituzue zintzilikatuta eta arratsaldekoak domekan bertan izango dira ikusgai.

Jendez gainezka egiten du Untzagako plazak urriaren lehenengo zapatuan. #SagardoEguna urteko zita garrantzitsua bihurtu da herrian; horrela adierazi digute hainbat tabernarik eta egoten den giroa azpimarratu dute. Gorenak markako hamahiru sagardoak probatzeko aukera izango duzue, argazkiak egiteko aukera, eta zergatik ez, gurekin batera elkarbanatu. Guztion artean adierazi dezagun zein egun ona izaten den #SagardoEguna.

Berri erlazionatuak

- [Arratsaldeko 19.00etan bueltan izango da #SagardoEguna](#)
- [Agurtu dugu #SagardoEguna, datorren urtera arte](#)
- [Ederto ibili ziren Wenzeslao Orbeako jaietan](#)
- [Sanmigelak errepikatuko dituzte hurrengo asteburuan Aginagakoek](#)
- [Wenzeslao Orbea kalekoen jaia zapatuan](#)
- [Iritziak \(0\)](#)
- [...eta kitto!-k erantzun \(0\)](#)

Iritzia eman: